


# GURE JENDEAK: GIZARTEA ETA KULTURA

HERRITARREN MAHAIA - (NUP) IRUÑEA, 2018.04.14

## ZERTAN DATZA KOHESIOA? || ANIZTASUNAREN MAPA

Eusko Ikaskuntzaren mendeurrena ospatzeko Kongresuak atzerako begiradak eskaintzen duen perspektibarekin etorkizunari begira solas egiteko esparru egokia eskaini digu eta gure gogoetak eta eztabaidak ardatz komun baten inguruan ardazteko proposamenari heltzen jakin izan dugu: euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzeta. Xede horren inguruan plazaratu ditugu batzuek eta besteek gura kezak, gure nahiak eta gure ilusioak.



Komunikabideek ez dute errealitatea islatzen soilik, errealitatea eraiki ere egiten dute. Haietan imajinatzen da komunitatea: zer garen, nortzuk garen eta ba ote garen.

Hezkuntzaren bidez, herri mugimenduen dinamismoz, eta euskal gizartearen onarpenaz, konfiantza loturak eraiki eta sendotu behar dira bilgune espazioak sortze aldera.

- ❖ Zertan datza herritartasuna? Herritartasuna zehazteko ba al dugu partekatzen dugun zorurik?
- ❖ Bizi praktiken gurutzaketa bizikidetza eratzailerak da, baina, aldi berean, gatazka iturri.
- ❖ Aniztasun denak elkarrekin txirikordatzen dira. Horrenbestez, bizikidetza eta kohesioa indartzekotan ezinbestekoa da aniztasunaren aniztasun hori bere osotasunean aintzat hartu eta kudeatzea.
- ❖ Aniztasuna askotarikoa den heinean, sare konplexu horren nondik norakoak aztertze eta tentsioaren balantza bizikidetzaren aldera lerratzeko, garrantzitsua da feminismoak ekarritako begirada interseksionala presente izatea.
- ❖ Hezkuntza sistemak aniztasunaren dimentsio askotarikoei erantzun behar die.
- ❖ Zer balio eskaintzen ditu eta nola sustatzen ditu kulturak berdintasunerako eta kohesiorako bideak?

Zertan datza herritartasuna?

Aniztasunaren pluraltasun hori nola kudeatu daiteke?

Zer paper jokatzen dute eskolak eta hezkuntzak horretan?

Nola txirikordatzen dira aniztasuna eta kohesioa?

Nola kudeatu kulturartekotasuna?

